



3. eranskina. Balioetsi beharreko metodologia

Parte-hartzea eta kontuak ematea ekintza humanitarioaren xede- biztanleriengan

GLEA

Eusko Jaurlaritza

Aurkibidea

Xedea.....	1
Gaiaren egoera.....	1
Azterlanaren nondik norakoa	2
Proposatutako metodologia	2
Azterketaren osagaiak eta parametroak	3
Galdesortak (KoboToolbox bidez)	5
Parte-hartzearen eta Kontuak Ematearen galdesorta betetzeko gida	13

Xedea

Eusko Jaurlaritzako GLEAk sustatutako *"Parte-hartzea eta kontuak ematea ekintza humanitarioaren xede-biztanleriengan"* azterlanaren helburua kontzeptuzko eredu praktikoa bat edukitzea da, ebidentzia enpirikoetan oinarritua, Ekintza Humanitarioaren xede diren biztanlerien parte-hartze efektiboaren errealitatearen inguruan, parte-hartze eta kontu-emate hori benetan nola egiten den; bidean aurkitzen diren zailtasun eta oztopoak zein diren; eta prozesu horiek martxan jartzeko aukerak eta bitartekoak zein diren ezagutzeko aukera emango duena; eta, horrez gain, parte-hartzeari eta kontuak emateari eraginkortasunez heltzeko jarraibide edo tresnak iradokiko dituen, erakunde humanitarioek beren eguneroko praxian horiek txertatzeko aukera izan dezaten.

Gaiaren egoera

Parte-hartzea eta Kontuak Ematea (PKE) —ingelesez “participation and accountability”— Ekintza Humanitarioaren alorrean asko landu den gaia da, eta horregatik, lankidetzaren agenteen kolektiboko gehiengo batek lehendik ebatzitako akordio



eta tresnetatik abiatuko da azterlan hau, eta ezarpen praktikoan berrikusiko da, benetako hesiak eta oztopoak identifikatuz.

Gai horren gaineko erreferentzia nabarmenetako batzuk honako hauek dira:

- ✓ Humanitarian Code of Conduct
- ✓ Core Humanitarian Standard
- ✓ Trading Standards
- ✓ ALNAP <https://www.alnap.org/our-topics/engagement-with-affected-people>

Azterlanaren nondik norakoa

Azterlan honen barruan honako hauek biltzen dira:

1. Gaiaren egoerari buruzko eta nazioartean adostutako esparru teoriko nagusiei buruzko azterketa bat.
2. Kasu-azterketa bat hiru herrialdetan: Palestina eta Kolonbian eta Kongoko Errepublika Demokratikoan erreferentzia diren bi gehigarri.
3. Kontsulta zabal bat, garapenerako lankidetzaren alorrean Eusko Jaurlaritzari laguntzen dioten erakundeen artean eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarekin.


Proposatutako metodologia

Azterlan hau egiteko, honako metodologia honi jarraituko zaio:

1. Nazioartean garrantzizkoa den dokumentazioa berrikustea
2. PKEaren alorrean dauden esparruetatik funtsezko elementuak ateratzea.
3. Parte-hartzea eta Kontuak Ematea balioesteko Eredu bat garatzea, hartan oinarrituta, euskal lankidetzaren eremuan indarrean dauden praktiken gaineko balioespen bat egiteko.
4. PKEaren egungo praktiken balioespena
5. Aurkikuntzak eta ondorioak
6. Gomendio praktikoak eta PKE sustatzeko eta balioesteko tresnen proposamena.



Parte-hartzeari eta Kontuak Emateari buruzko metodologia



Azterketaren osagaiak eta parametroak

Honako parametro eta osagai hauei helduko zaie:

1. Kontzeptuzkoak

- 1.1 Parte-hartzearen kontzeptua
- 1.2 Kontuak Ematearen kontzeptua
- 1.3 Parte-hartzearen eta Kontuak ematearen arteko lotura

2. Kulturalak (biztanleriaren, ingurune-testuinguruen eta erakundearen)

- 2.1 PKEari eragiten dioten biztanleriaren kultura-faktoreak.
- 2.2 PKEari eragiten dioten ingurune- eta testuinguru-faktoreak.
- 2.3 Erakunde Humanitarioen kultura-faktoreak

3. Kudeaketakoak, jakintza, instrumentalak, ospea eta finantzaketa barne

- 3.1 Politika eta estrategiak
- 3.2 PKErako antolamendu-tresnak eta erremintak
- 3.3 Erakunde-inplikazioak

Osagai horietatik abiatuta 24 elementu identifikatu dira, honekin batera doan taulan erakusten denez, eta elementu horietatik abiatuta garatu dira elkarriketarako galdesortak:



Parametroak	Osagaiak	#	Elementuak (horietatik abiatuta garatzen dira galdesortak)
1. Kontzeptuzkoak	1.1 Parte-hartzearen kontzeptua	1	Biztanleriek Ekintza Humanitarioan parte hartzearen definizioa
		2	Parte-hartzea justifikatu eta sustatzeko azken arrazoiak (etikoak / utilitaristak). Parte-hartzearen Zuzenbide-oinarriak (eskubideen ikuspegia edo lan-metodologia)
		3	Parte-hartzea sustatzeko faseak edo eremuak
		4	Parte hartzean hainbat talde aintzat hartzea: generoa, adina, gutxiengo etnikoak, talde estigmatizatuak, etab.
	1.2 Kontuak Ematearen kontzeptua	5	Ekintza Humanitarioan biztanleriei kontuak Ematearen definizioa
		6	Kontuak Ematea eta Kexa eta Erreklamazioekiko eta Feedbackarekiko lotura.
		7	Kontuak Ematea justifikatu eta sustatzeko azken arrazoiak (etikoak / utilitaristak); Zuzenbideko oinarriak.
		8	Kontuak Ematea sustatzeko faseak edo eremuak
		9	Kontuak ematearen inplikazioak / ondorioak
	1.3 Parte-hartzearen eta Kontuak ematearen arteko lotura	10	Parte-hartzearen eta Kontuak Ematearen arteko lotura-elementuek benetako berrelikadura-zirkulu bat osatzen al dute?
		11	Biztanleriek kontuak ematearen kudeaketan parte hartzea: feedback erakundeari, kexen kudeaketa, etab.
2. Kulturalak (biztanlerienak, ingurune-testuinguruenak eta erakundeak)	2.1 PKEari eragiten dioten biztanleriaren kultura-faktoreak.	12	PKE efektiboan eragina duten kultura-faktore posibleak kontuan hartzen dira? Zein dira kultura-faktore horiek? (patriarkalak, generokoak, etnia, hierarkikoak, gatazka-dinamikak, ahozko kultura versus idatzizkoa, etab.).
		13	Praktikan, nola hartzen dira kontuan biztanlerien kultura-faktore horiek?
	2.2 PKEari eragiten dioten ingurune- eta testuinguru-faktoreak	14	Ba al da PKEan eragina duen ingurune-faktoririk: gatazka politikoak, historikoak...? Eta, kontuan hartzen al dira?
		15	Ba al da testuinguru Humanitarioan PKEan eragina duen faktoririk? (adibidez: biztanlerien mugikortasun handia-migrazioak, Erakunde Humanitarioen txandakatze-maila handia, etab.). Nola hartzen da kontuan?
		16	COVID-19ak PKEan dauzkan inplikazioak, egungoak eta aurreikus daitezkeenak. Hartu beharreko neurriak
	2.3 Erakunde Humanitarioen kultura-faktoreak	17	PKEan eragin positiboa edo negatiboa duten Erakunde Humanitarioen balio eta jarrerak
		18	Nola maneiatzen dira antolamendu-balio eta antolamendu-jarrera horiek PKEaren alde?



3. Kudeaketakoak (jakintza, instrumentalak, ospea eta finantzaketa barne)	3.1 Politika eta estrategiak	19	PKE jasota al dago Erakunde Humanitarioen printzipio, politika eta estrategietan? Non eta nola?
		20	PKEko antolamendu-irizpideak zenbateraino zabaldu diren erakundeetako langileen artean
	3.2 PKErako antolamendu-tresnak eta erremintak	21	Zer tresna dauzka erakundeak PKE efektiboa ziurtatzeko?
		22	Zer antolamendu-mailatan kudeatzen da PKE (eragiketa-mailan, gerentzian, Zuzendaritzan)?
	3.3 Erakunde-inplikazioak	23	Zein dira PKEak Erakunde Humanitarioan dauzkan inplikazioak? Ospea, finantzak, orientazio estrategikoa?
		24	PKEko erantzukizunak banatzea Emaileen, Nazioarteko Erakunde Humanitarioen, Erakunde Nazional-Lokal Humanitarioen, Toki-koordinazioko taldeen eta Ekintza Humanitarioaren xede diren biztanlerien artean.

Galdesortak (KoboToolbox bidez)

Galdesorta honako hau da:

Parte-hartzea eta Kontuak Ematea (PKE) / Participation & Accountability (P&A) - GLEA

Inkesta betetzeko argibideak

*Inkesta hau borondatezkoa eta konfidentziala da. Ekintza Humanitarioko programen xede diren biztanlerien Parte-hartzearen eta Kontuak Ematearen praktikak hobetzen laguntzeko helburua dauka. Mesedez, bete inkesta **2020ko azaroaren 22a** baino lehen. Erakunde bakoitzeko inkesta bati erantzun behar zaio. Zalantza edo iradokizunen bat baduzu, bidal iezaiozu **Fernando Almansari honako helbide honetara: fer.almansa@gmail.com**. Eskerrik asko*

NORTASUNA

(Galdesorta anonimoa da, baina nahiago baduzu zure burua identifika dezakezu 0.0 atalean)

0.0 Zuk nahiago baduzu soilik, Erakundearen izena jar dezakezu hemen. Bestela, utzi bete gabe.

0.1 Zu edo zure erakundea talde hauetako baten kidea zara/da? * Hautatu aukera bat soilik.

- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (GLEA)
- Euskal Erakundea
- GKE baten EAEko ordezkaria
- Nazio Batuen erakunde kolaboratzailea EAEn
- Nazio Batuen agentzia
- Tokiko bazkidea
- Ekintza humanitariorako programen xede den biztanleria



Parte-hartzearen kontzeptua

1. Definitu hitz gutxitan zuretzat zer esan nahi duen biztanleriek Ekintza Humanitarioan parte hartzea

Egin definizio bat gehienez lerro pare batean, funtsezko hitzak erabiliz

2. Zure ustez, zein dira komunitateek Ekintza Humanitarioan parte hartzea justifikatu eta sustatzeko funtsezko arrazoiak, eta zein dira bigarren mailako arrazoiak edo garrantzirik ez dutenak?

	Funtsezkoa	Bigarren mailakoa	Garrantzirik gabea
Programen inplementazioa errazten du			
Xede-biztanleria programez jabetzea eta onartzea ziurtatzen du			
Lanerako metodologia baliagarria da			
Ekintza Humanitarioaren xede diren komunitateen eskubidea da, eskubideen ikuspegiaren zati da			
Emailen eskakizun bat da			
Beste batzuk (zehaztu zein hurrengo galderan)			

2.1 "Beste batzuk" hautatu baduzu, mesedez zehaztu zein

3. Adierazi parte-hartzea zer fase edo eremutan sustatu behar den

	Funtsezkoa	Desiragarria	Ez da beharrezkoa
Premien balioespena/"Xede-biztanleriaren" hautaketa			
Programaren edo jardueren diseinua			
Aurrekontuaren banaketa			
Jardueren inplementazioa			
Monitorizazioa eta ebaluazioa			



Beste batzuk			
--------------	--	--	--

3.1 "Beste batzuk" hautatu badituzu, zehaztu zein.

--

3.2 Praktikan, nola parte hartzen dute biztanleriek Ekintza Humanitarioko programen kudeaketan? Deskribatu labur-labur xede-biztanleriek nola parte hartzen duten Ekintza Humanitarioko programen kudeaketan

--

4. Ekintza Humanitarioko programa baten xede diren pertsonen parte hartzeko aukera emateko garaian, zenbateraino hartzen dira kontuan honako talde hauek?

	Neurri handian	Neurri ertainean	Neurri txikian
Emakumeak			
Gazteak			
65 urtetik gorakoak			
Haurrak			
Gutxiengo etnikoak edo baztertutako klase sozialetako taldeak			
Oso kalteberak diren taldeak, pertsona gaixoak edo gaitasun desberdinak dituztenak, etab.			
Gizonak			
Beste batzuk			

4.1 "Beste batzuk" hautatu baduzu, hautatu zein.

--

Kontuak Ematearen kontzeptua

5. Definitu hitz gutxi batzuetan Ekintza Humanitarioaren xede diren biztanleriei Kontuak ematea zuretzat zer den. Egin definizio bat gehienez lerro pare batean, funtsezko hitzak erabiliz.

--

6. Markatu biztanleriei Kontuak ematearekin zerikusia duten kontzeptuak

- Kexen kudeaketa
- Erreklamatzeko eskubidea
- Konpentsaziorako eskubidea
- Egindako jardueren aurkezpena
- Kontuen aurkezpena eta programaren finantza-egoera
- Komunitateek erakunde humanitarioei "feedbacka" emateko duten eskubidea
- Beste batzuk

6.1 "Beste batzuk" hautatu baduzu, mesedez zehaztu zein

--



7. Zein dira, zure ustez, Ekintza Humanitarioaren xede diren komunitateei Kontuak Ematea gauzatzeko funtsezko arrazoiak, eta zein bigarren mailako arrazoiak edo garrantzirik ez dutenak?

	Funtsezkoa	Bigarren mailakoa	Garrantzirik gabea
Programen inplementazioa errazten du			
Xede-biztanleria programez jabetzea eta onartzea ziurtatzen du			
Lanerako metodologia baliagarria da			
Ekintza Humanitarioaren xede diren komunitateen eskubidea da, eskubideen ikuspegiaren zati da			
Emailen eskakizun bat da			
Beste batzuk (zehaztu zein hurrengo galderan)			

7.1 "Beste batzuk" hautatu baduzu, mesedez zehaztu zein

8. Adierazi Kontuak Ematea zer fase edo eremutan gauzatu behar den

	Funtsezkoa	Desiragarria	Ez da beharrezkoa
Premien balioespena/Xede-biztanleriaren hautaketa			
Programaren diseinua: jarduerak eta aurrekontua			
Jardueren inplementazioa			
Monitorizazioa eta ebaluazioa			
Programaren amaieran			
Beste batzuk			

8.1 "Beste batzuk" hautatu baduzu, zehaztu zer eremuz edo fasez ari zaren



9. Adierazi kontuak emateak zer inplikazio edo ondorio izan behar dituen Aukeratu gehienez hiru aukera

- Programa berriz diseinatzea, jardueri dagokienez
- Programa berriz diseinatzea, Ekintza Humanitarioaren xede den biztanleria hautatzeari dagokionez.
- Kolektibo jakin batzuei konpentsatzea
- Aurrekontu-aldaketak programan
- Egiturazko aldaketak Erakunde Humanitarioan
- Beste batzuk

9.1 "Beste batzuk" hautatu baduzu, adierazi zein

Parte-hartzearen eta Kontuak ematearen arteko lotura

10. Adierazi labur-labur zure ustez zein diren Parte-hartzearen eta Kontuak Ematearen arteko loturak

10.1 Parte-hartzea eta Kontuak Ematea, benetako berrelikadura-zirkulu bat dela uste duzu?

- Bai, Parte-hartzeak eta Kontuak Emateak elkar berrelikatzen dute praktikan.
- Ez, Parte-hartzea eta Kontuak Ematea bi prozesu independente dira praktikan.
- Ez dakit berrelikadurarik ba ote dagoen.

11. Praktikan, nola parte hartzen dute biztanleriek kontuak ematearen kudeaketan? Deskribatu labur-labur biztanleriak kontuak emateko prozesuetan nola inplikitzen diren

Parte-hartzeari eta Kontuak Emateari (PKE) eragiten dioten biztanleriaren kultura-faktoreak

12. Parte-hartzea eta Kontuak Ematea inplementatzerakoan, zein dira PKE efektibo baten lorpenean eragiten duten biztanleriaren kultura-faktoreak? Hautatu egokitzat jotzen dituzun guztiak:

- Patriarkalak
- Etnikoak
- Generokoak edo klase sozialekoak
- Gatazka-dinamikekin lotutakoak
- Ahozko kultura versus idatzizkoa
- Beste batzuk
- Bat ere ez

12.1 Nahi baduzu, azaldu labur-labur identifikatu berri dituzun kultura-inplikazioak.

13. Praktikan, nola hartzen dira kontuan biztanleriaren kultura-faktore horiek PKE ezartzean? Deskribatu labur-labur nola egiten den. Ahal bada, erantsi benetako adibide bat



Parte-hartzean eta Kontuak Ematean (PKE) eragiten duten ingurune- eta testuinguru-faktoreak

14. Ba al da PKEan eragina duen ingurune-faktorerik (gatazka politikoak, historikoak...)? Eta, kontuan hartzen al dira? Hautatu dauden guztiak

- Indarkeriazko gatazka
- Faktore politikoak
- Faktore historikoak (kolonialak, menderatzeari lotutakoak, etab.)
- Beste batzuk
- Bat ere ez

15. Testuinguru Humanitarioan ba al da PKEan eragina duen faktorerik?

- Bai
- Ez
- Ez dakit

16. Nola eragiten ari da COVID-19a PKEan?

- Komunitateen parte-hartze eta ahalduntze handiago bat Ekintza Humanitarioan
- Komunitateen parte-hartze eta ahalduntze txikiago bat Ekintza Humanitarioan
- Kontu-emate txikiago bat Erakunde Humanitarioen aldetik
- Gardentasun eta kontu-emate handiago bat Erakunde Humanitarioen aldetik
- Beste batzuk
- Eragin bat ere ez

16.1. “Beste batzuk” hautatu baduzu, adierazi zein

Parte-hartzean eta Kontuak Ematean (PKE) eragiten duten ingurune- eta testuinguru-faktoreak

17.a. Zure ustez, zein dira PKE errazten duten Erakunde Humanitarioen eta haien langileen balio, jarrera eta gaitasunak? Hautatu gehienez hiru. Zuretzat garrantzitsuenak direnak.

- Zintzotasuna
- Profesionaltasuna
- Gardentasuna
- Umiltasuna
- Tokiko hizkuntza eta kultura ezagutzea
- Esperientzia
- Beste batzuk (generoa, langile humanitarioen adina, etab.)

17.b Zein dira PKE oztopatzen duten Erakunde Humanitarioen eta haien langileen jarrerak, portaerak eta gabeziak?

- Biztanleriekiko enpatiarik eza
- Jarrera kolonialak eta menderatzean oinarrituak
- Matxismoa
- Biztanlerien kultura, hizkuntza eta testuingurua ez ezagutzea
- Baliabide egokirik eza
- Beste batzuk



17.b.1. “Beste batzuk” hautatu baduzu, adierazi zein

18. Nola kudeatzen dituzte Erakunde Humanitarioek PKE sustatzeko dituzten balio, jarrera eta gaitasunak? Deskribatu labur-labur, zure esperientziatik, erakundeek PKEaren aldeko balioak nola zaintzen eta abiarazten dituzten. Esaterako, langileen hautaketan balio eta eskumen espezifikoak txertatzean, etab.

PKEko Politika eta Estrategiak

19. PKE jasota al dago Erakunde Humanitarioen printzipio, politika eta estrategietan?

- Bai
- Ez
- Ez dakit

20. Azaldu labur-labur PKEko antolamendu-irizpideak nola zabaltzen diren erakundeetako langileen artean, norengana iristen diren zehaztuz (taldeak, departamentuak, langileak...).

PKErako antolamendu-tresnak eta erremintak

21. Zer metodologia dauzka erakundeak PKE efektiboa ziurtatzeko? Adierazi Erakundeak PKE efektiboa ziurtatzeko dauzkan metodologiak, prestakuntzak, etab.

21.1 Markatu Erakunde Humanitarioak tresna praktiko hauetatik dauzkanak zein diren, PKEari dagokionez.

- Xede-biztanleriei lotutako Parte-hartzeko eta Kontuak Emateko politika
- Kexak kudeatzeko prozedura eta mekanismoak
- Iradokizun edo iruzkinak kudeatzeko prozedura eta mekanismoak
- Beste batzuk
- Bat ere ez

22. Zen antolamendu-mailatan kudeatzen da PKE? (Eragiketak, Gerentzia, Zuzendaritza). Hautatu egokitzat jotzen dituzun guztiak

- Eragiketak / Proiektuak lekuan bertan
- Gerentzia / Egoitzan kudeatzea
- Zuzendaritza Taldeak
- Gobernu-eremua (Patronatua, Batzarra...)
- Bat ere ez



Erakunde-inplikazioak

23. Zein dira PKEak dauzkan edo Erakunde Humanitarioaren barruan onartzeko prest leudekeen inplikazioak/aldaketak?

- Orientazio Estrategikoak
- Proiektuen doikuntzak
- Finantzarioak
- Erakunde-ikaskuntzari buruzkoak
- Hirugarrenen aurreko ospeari lotutakoak
- Beste batzuk

23.1. “Beste batzuk” hautatu baduzu, adierazi zein

24. PKEko erantzukizunak banatzea Emaileen, Nazioarteko Erakunde Humanitarioen, Erakunde Nazional-Lokal Humanitarioen artean. Adierazi zure ustez zein diren PKEa gauzatzean erantzukizun-maila handiena duten hiru erakundeak (gehienez).

- Emaileak
- Nazioarteko Gobernu Kanpoko Erakundeak
- Nazio Batuen agentziak
- Erakunde Nazional-Lokal Humanitarioak
- Toki Koordinazioko taldeak (Adibidez: Errefuxiatu-esparruen kudeaketa koordinatzeko batzordeak, etab.)
- Ekintza humanitarioaren xede diren biztanleriak
- Beste batzuk

24.1. “Beste batzuk” hautatu baduzu, adierazi zein



Parte-hartzearen eta Kontuak Ematearen galdesorta betetzeko gida

Eskerrik asko, Ekintza humanitarioko programen xede diren biztanlerien Parte-hartzeko eta kontuak emateko praktikak hobeto ezagutzeko eta hobetzen laguntzeko azterlan honetan parte hartzeagatik.

Espero dugu inkesta honi erantzuteak bide ematea, halaber, erakundearen barruan gogoeta bat egiteko, Ekintza Humanitarioaren xede diren biztanleriekiko Parte-hartzeko eta Kontuak Emateko praktikei nola heltzen zaien aztertzeko.

Galdesorta hiru bloke edo parametro handitan egituratu da, eta horietako bakoitzean 9 osagai bereizten dira.

1. Kontzeptuzkoak

- 1.1 Parte-hartzearen kontzeptua
- 1.2 Kontuak Ematearen kontzeptua
- 1.3 Parte-hartzearen eta Kontuak ematearen arteko lotura

2. Kulturalak (biztanlerienak, ingurune-testuinguruenak eta erakundeak)

- 2.1 PKEari eragiten dioten biztanleriaren kultura-faktoreak.
- 2.2 PKEari eragiten dioten ingurune- eta testuinguru-faktoreak.
- 2.3 Erakunde Humanitarioen kultura-faktoreak

3. Kudeaketakoak, jakintza, instrumentalak, ospea eta finantzaketa barne

- 3.1 Politika eta estrategiak
- 3.2 PKErako antolamendu-tresnak eta erremintak
- 3.3 Erakunde-inplikazioak

Osagai horietatik abiatuta landu dira galderak. Jarraian zenbait puntu adieraziko dizkizugu, inkesta osatzeko lagungarri izan daitezkeenak.

1. Inkesta hau borondatezkoa eta konfidentziala da.
2. Kontuan hartu erakunde bakoitzeko inkesta bati bakarrik erantzuteko aukera dagoela.
3. Mesedez, bete inkesta **2020ko azaroaren 22a baino lehen**. Data horretatik aurrera galdesorta itxiko da, erantsitako emaitzen azterketari ekiteko.
4. On-line eskuratu eta bete daiteke, edozein ordenagailutatik edo Android gailutatik.
5. Sartu inkestan hemen klik eginez: [Parte-hartzeari eta Kontuak Emateari buruzko galdesorta](#) edo nabigatzailean honako esteka hau kopiatuz: <https://ee.kobotoolbox.org/x/LO1SHq6w>
6. Inkestak online bidali behar dira, "Validate" tekla sakatuz galdesorta betetzeko lanak amaitzean (ezin dira beste edonola bidali).
7. Baduzu inkesta zenbait unetan egiteko aukera, erantzunak zirriborro moduan gordez inkestaren amaierako aukera erabiliz. Nolanahi ere, behin bakarrik egitea gomendatzen da:
8. Behin galdesorta irekitzen denean gora joan, eskuinera, galdesortari erantzuteko nahiago duzun hizkuntza hautatzeko. Gaztelaniaz eta ingelesez dago eskuragarri.



9. Galdera irekiak beste hizkuntza batzuetan erantzun daitezke, baina eskertuko genizueke galdesortako hizkuntzetara mugatzea, emaitzen azterketa errazteko. Nolanahi ere, beste hizkuntza guztiak ongi etorriak izaten dira beti.
10. Galdera batek izartxo bat badarama, (*) aurrera egiteko nahitaezkoa dela esan nahi du.
11. Galdera batzuetatik beste galdera batzuk sortuko dira, emandako erantzunen arabera.

Edozein zalantza edo iradokizun baduzu, bidal iezaiozu Fernando Almansari helbide elektroniko honetara: fer.almansa@gmail.com

Eskerrik asko.